

## Transpakterreko haur eskolan pitzatuak azaldu eta umeak udaletxera eraman zituzten atzo

■ Udalak haurzaindegia itxi egin du "edificioaren zati horretako estructura benetan nola dagoen aztertu arte"  
■ Haurzaindegian dauden 64 umeak jangelan egongo dira, egokitzeo obrak egin eta gero.

UDALETXEKO Areto Nagusia kolpetik haurzaindegia bihurtu zen atzo. Transpakterreko Udal haurzaindegian pitzatuak azaldu dira eta udal teknikoek erabateko garantiarik ematen ez zutenez, Udalak erabaki du umeak handik ateratzea. Haurzaindegian 64 ume daude eta 12 zaintzaile, eta Udaletxeen pasa zuten atzoko eguna. Udalak ez du adierazpenik egin nahi izan eta prentsa komunikatu baten bidez azaldu du bere postura. Hemendik aurrera, umeak Udal Jangelan egongo dira (Kirolegiko frontoi ondoan). Lekua, ordea, ez dago erabat egokitua, eta obrak dagoeneko hasi dira. Baino horiek egin bitartean "umeak Transpakterreko zati batean egongo dira, pitzatuak dauzkan etxe zatia itxita".

Transpakterreko edifizioak lehen ere izan zuen arazo hori eta joan den urtean berritu egin zuten. Otsailean zabaldu zuten, ostera eta udararako hasi ziren pitzatuak azaltzen. Orduan, obra berria asentatu artekoa izango zela pentsatu zen, baina, geroz eta pitzatu haundiagoak egin zaizkio eta horrek



Haurzaindegiko umeak Udaletxeko Areto Nagusian, atzo.

sortu du kezka. Astearte arrasaldean asanblea egin zuten gurasoek, haurzaindegiko zaintzaileak eta Udalak.

### Haurzaindegia eutsi

Gobernu Taldeak ukatu egin du Transpakterreko momentuz itxi izanak haurzaindegia zerbitzua zalantzan jartzen duenik.

Udalak azpimarratu du umeen seguritatea izan dela erabaki horren arrazoi bakarra eta azaldu du Udal Gobernuak haurzaindegia eutsi egingo diola. "Zentzu honetan, umeak zaintzeko denbora baterako soluzioak bilatu ditugu, eta helburu horrekin Udaletxeko Pleno Aretoa utzi dugu ahalik

eta molestia gutxiena izateko" dio Gobernuaren oharrak.

### Ardurak aztertzen

Transpakterreko orain dela gutxi berritu zuten, eta Gobernuak adierazi du teknikoak aztertzen ari direla egoera honen atzean egin litezkeen ardurak argitzeko. □

## Osiñagan Auzo Elkartea bilera igandean

OSIÑAGAKO Auzo Elkartea bilera egingo du igandean eta zerrategiaren kontua izango da puntuetako bat. Auzo Elkartea Kronikari adierazi dionez, urriaren 17an Iñaki Arratibel Hirigintza eta Ingurugiro zinegotziarekin bilera izan zuten zerrategia eta industriak auzoan sortzen dituen zaratei buruz, eta horren berri emango da igandeko bileran. Auzo Elkartea esanetan, "zerrategiaren inguruan Auzo Elkartea jarrera finkatu behar dugu eta hurrengo urratsak definitu". Horretaz gain, auzoan egin litezkeen beste arazoak ere bilduko dira bileran eta urte bukaera arteko ekitaldi-egutegia ere zehaztuko du Osiñagako Auzo Elkartea.

### Umeen jaia larubatean

Auzo Elkartea umeentzako jaia antolatu du larubaterako Arriatsuko eskolan, 16:30etan: ume jolasak, merienda eta abar izango dira. □

## Floridak emakumeek bazkaria egingo dute

FLORIDAKO emakumeak (auzoan jaioak eta gaur egunean bertan bizi direnak) bazkaritan elkartu ziren orain dela bi urte, eta aurten ere biltzeo asmoa dute. Bazkaria azaroaren 15ean, Etxeberriko Lagun Artea elkartean. Izena emateko, honako telefonoetara deitu, azaroaren 1a baino lehen: 943-554309 (Pili), 943-333819 (Belen), 943-552551 (Arrate). □

## Felix Zubia medikua gaur Ereñotzun

EREÑOTZUKO kultur astearen barruan, Felix Zubia medikuak hitz egingo du gaur osasuna eta janaren gainean. Hitzaldia, 20:00etan da, Txirrita Eskolan. Bihar, Patxin eta Potxin pailazoak izango dira, 18:00etan, plazan. □



Iñaki Zuza mendizale hernaniarra gai lanetan ibiltzen da.

## Iñaki Zuza hernaniarrak Ama Dablam 6.812 m-ko mendia igo du

IÑAKI Zuza mendizalea ia 7.000 metrotara igo da Nepalen. Espedizioa 7 mendizalek osatzen zuten eta hernaniarra gai lanetan aritu da. Ama Dablam hegoaldekit igo dute, bide normala baino nekezagoa den beste batetik.

Iñaki Zuza eta gainerako

mendizaleak dagoeneko jai-tsi dira behera eta 10 egun barru Hernanin izatea espero du.

Ama Dablam ez da mendizale hernaniarrak igo duen mendi bakarra eta aurrerako ere baditu asmo berriak. Abenduan Akonaguara joateko da. □

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea  
Eguneko menuak  
Asteburuan afariak  
Florida 54  
943 33 03 97

Egunero menuez gain,  
Ostiral eta larunbatetan  
afariak ematen ditugu.

**ZINGI - ZANGA**  
Florida auzoa 54- 943 33 03 97

*Arrandegia*  
Mari Fe

Nagusia 36  
943 550 489

Orkologa 17  
943 552 741

HERNANI

**Etxeberri**  
Taberna

Etxeberri 2.blokea - 943 551267

Egunero menuak, Asteburuan:  
Bazkariak eta afariak.

**CALARRETA DE ALTAI**

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00ETATIK AURERA**

**ERREMONTZE JAIALDIA:**

- partidua: Juaristi - Agirrezabala / Larrea - Olazar
- part.: Zeberio II-Lizaso / Agirresarobe-Altuna I-Aizpuru
- partidua: Bitoria - A.Lekunberri / Sarasua - Etxabe
- partidua: Zeberio I - Badiola / Matxin III - Aizpuru II

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Eduardo Trocoso Argentinako truke modeloari buruz hizketan, asteartean.

## Andragoto Kultur Elkarteak aurkezpen publikoa egingo du bihar eta interesatuei parte hartzeko deia egin die

■ Andragoto Kultur Elkartearen aurkezpena bihar izango da arratsaldeko 20:00tan ■ Aurkezpenarekin batera jendearen proposamenak eta iritzia bildu nahi dira.

ANDRAGOTO Kultur Elkarteak aurkezpen publikoa egingo du datorren ostiralean, urtziak 24, arratsaldeko 20:00tan, Andragoton bertan. Horrekin batera, interesa duen jende guztia dei egiten die aurrentzean kultur elkartean parte hartzeko eta proposamenak egiteko.

Andragoto urtarrilean ireki zen eta ordutik hitzaldiak, tailerrak, antzerkia, gai batu buruzko asteak, eta abar antolatu dituzte. Denbora honetan, Andragotok nola funtzionatu duen ikusi eta gero, elkartearren oinarriak jarri nahi dituzte orain eta horregatik egingo dute aurkezpena bihar.

Andragoto Kultur Elkarte proiektuaren oinarrian dago, bertako kideek adierazi dutenez, bertako artista eta artisauak bultzatzea eta jendea balore kulturaletara hurbiltzea. Horrekin batera, herriko talde



Astelehenetik hasita trukearen inguruko jardunaldiak izan dira.

eta pertsonentzako gune irekia izatea nahi lukete eta horiei lokala utzi beren bilera eta aktibitateak antolatzeko. Andragoto Kultur Elkarte apolitiko, inpartziala eta autogestionatua dela adierazi dute bertako kideek, kritika eta independentzia alde batera utzi gabe.

Andragoton liburutegi bat eta hemeroteka daude eta

mahaia eta aulkia dituzten biga. Horrekin batera alkoholik gabeko edaria saltzen duten barra bat dute dirua atera eta autogestioa bultzatzeko asmoarekin.

**Trukea egiteko aukera gaur**  
Bestalde, gaur trukearen inguruko jardunaldietan jendeak gauzak trukatzeko aukera izango du. □

## ESKOLA KIROLA


## ASTEBURUKO EMAITZAK



Alebin mailako pelotariak, alde bietara entrenatzaileak dituztela.

Erugbia	Taldeak	N o n	P e l o t a	
Benjam inak	Langile A - Unum ea A	2-1	A lebinak	Langile B - Langile A
Benjam inak	Langile A - Unum ea A	3-1	A lebinak	Unum ea A - Langile E
Benjam inak	Langile B - Unum ea A	2-0	A lebinak	Unum ea C - Elizto A
Benjam inak	Unum ea D - Langile C	1-1	A lebinak	Langile C - Langile D
Benjam inak	Langile B - Unum aculada	3-1	A lebinak	Unum ea B - Txintxa
Benjam inak	Unum ea B - Elizto A	0-3	Saskibaloi a	
Benjam inak	Unum ea B - Langile C	0-2	A lebin m utilak	Unum ea A - Unum aculada
Saskibaloi a			A lebin m utilak	22-8
A lebin m utilak	Langile - Elizto A	15-31	A lebin neskak	Elizto B - Unum ea B
				13-48
				Langile - Unum ea
				22-14

## HITZ BITAN



Ipuria taldea kirolegian, joan den igandean.

### ✓ GIMNASIA

**Tejedor Gipuzkoako txapeldun, Ipuruarekin.** Asteburuan Gipuzkoako Gimnasia Txapelketa jokatu da taldeka eta Eibarko Ipurua taldeak irabazi du, Jaione Tejedor herniarra tartean zela. Txapelketa Hernaniko kirolegian jokatu zen eta Donostiako taldea eta Ipurua aritu ziren lehian. Ipuruak aurreneko lana behintzat oso ondo egin zuen eta jendea txaloka jarri zuen. Jaione bete-betean sartua dago denboraldian eta asteburu honetan Gasteizen eta Zaragozan izango ditu probak.

### ✓ POESIA

**'Eguraldiaz Hizketan' Karkabako plazan.** Gaur gaeuan Mikel Peruarenaren poesia liburua aurkeztuko dute Karkabako plazan. Ekitaldia 21:00etan hasiko da eta, Andoni Tolosa Morauk hartuko parte, besteak beste.

### ✓ JUBILATU ETXEA

**Akordeoi kontzertua eta Larramendi korua.** Jubilatu Etxean musika izango da protagonista gaur arratsaldean. 19:30etan hasita, batetik, Irungo Kontserbatorioko akordeoi orkestak kontzertua emango du eta, Larramendi koruaren kantuak entzuteko aukera ere izango da.

### ✓ DOBERA

**Argazki zaharren erakusketa Biterin.** Dobera Euskara Elkarteak Hernaniko argazki zaharren erakusketa jarri du Biteri kultur etxearen. Denera 72 argazki jarri ditu Doberak eta XX-garren mendeko Hernaniren historia grafikoa biltzen dute, mende hasieratik 80garren hamarkadara arte. Erakusketa azaroaren 3a arte egongo da zabalik, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte.

### ✓ MIKOLOGIA ASTEA

**Lehiaketako argazkien proiekzioa gaur.** Mikologoia Asterako aurkeztu diren perretxiko argazkiak gaur proiekztuko dituzte Biterin, arratsaldeko 20:00etan.

### ✓ MENDIRIZ MENDI

**Argazkiak aurkezteko azken eguna bihar.** Mendizale Astearen barruan argazki lehiaketa antolatu du Mendiriz Mendik eta bihar da argazkiak aurkezteko azken eguna. 20:00etatik 21:00etara elkarteko lokalean. □

## ZERBITZUAK

### ► TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzainaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Ambulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### ► FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- Gauetza: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B ☎ 943 366567

## IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : **658 73 88 32** (iluntzean)

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuek deitu: **943 55 27 79**